



SICUT COMIT COMIT & GRUPOS.

Guggenheim Bilbao Museoaren
jarduerak Euskadiko
ekonomian izandako eragina
2010. urtean

2010an Museoaren jardunak Euskadin sortutako guztizko gastu zuzena **212.925.617** eurokoa izan zen, bisitari bakoitzeko 223,97 euroko batez besteko gastua adierazten duela. Gastu zuzenaren guztizkoa ondoko kontzeptu hauek batzean lortzen da:

- 185.532.114 euro, Museoaren instalazioetatik kanpo bisitariak egindako gastuei dagozkienak, egindako inkesten emaitza gisa ateratako gastu-profilaren arabera. Museoaren jardunaren garapenetik onura handien lortu duten sektoreak hauek izan dira:
 - Gastronomía: 83.818.696 euro jatetxe, taberna eta kafetegietan.
 - Erosketak: 27.191.358 euro denda eta komertzioetan.
 - Ostatua: 42.058.268 euro hotel, ostatu-etxe eta bestelakoetan.
 - Garraioa: 12.448.924 euro alokairu, gasolina, bidesari, txartel eta abarretan.
 - Aisia: 20.014.868 euro zinema, antzoki, beste museoetako bisitaldi eta abarretan.
- 27.393.503 euro Museoan eta honekin lotutako bestelako jardueretan (bisitariak, denda, jatetxea, Banakako Kideek eta Kide Korporatiboek egindako ekarpenak, ekitaldi bereziak antolatuztik ondorioztatzen direnak, diru-laguntzak, eta abar) egindako gastuetan.

Beraz, eta efektu zuzenak, zeharkakoak eta eragindakoak kontuan hartuta, 2010. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak **193.228.895** euroko aberastasuna sortu dute BPGan, **26.315.843** euroko diru-sarrera gehigarriak Euskal Ogasun Publikoentzat, eta 3.853 enplegu mantentzen lagundu dute.

Ondoren, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan izandako eragina agertzen da 1997ko urritik 2010eko abenduaren 31ra:

Euro	1997 urr.-abe.	1998	1999	2000	2001	2002
Eragina						
Gastu zuzenak	40.568.317	190.400.635	202.799.514	191.903.165	149.724.135	143.706.595
BPG sorkuntza	31.517.075	147.921.099	157.555.323	149.087.063	168.331.470	162.327.827
Enplegua (1)	832	3.906	4.161	3.937	4.415	4.265
Sarrerak Ogasuna	5.871.888	27.562.415	29.359.441	27.784.790	26.949.383	25.988.685

Euros	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Eragina						
Gastu zuzenak	153.745.225	163.711.085	165.835.281	233.621.942	242.986.389	231.788.989
BPG sorkuntza	173.089.191	184.046.738	186.197.551	211.633.296	220.240.289	210.072.873
Enplegua (1)	4.547	4.842	4.893	4.232	4.399	4.196
Sarrerak Ogasuna	27.711.580	29.465.882	29.810.227	28.822.339	29.994.526	28.609.825

Euros	2009	2010	GUZTIRA
Eragina			
Gastu zuzenak	204.506.729	212.925.617	2.528.223.618
BPG sorkuntza	185.576.062	193.228.895	2.380.824.752
Enplegua (1)	3.695	3.853	4.253
Sarrerak Ogasuna	25.273.604	26.315.843	369.520.428

(1) Enpleguko zenbatekoek enplegua mantentzen egindako ekarpena adierazten dute, ez ordea lanpostu berrien sortzea.